



MUSIKA

# Musikari esker mugak gainditzen



Argazkian Holy Nuns taldea ageri da, bilduman parte hartu duen taldeetako bat.

**IKER BARANDIARAN**

**B**asket Beats Borders ekimena ulertzeko Libanon dagoen The Shatila errefuxiatuen kanpalekuan kokatu behar gara. Han bizi dira Israelgo Estatuen indarkeriatik eta krudelkeriatik ihes egindako 25.000 palestinar eta horien artean da saskibaloitza taldea osatu zuten 16 eta 20 urte arteko neska taldea. Italian eta Euskal Herrian sortutako elkartasun sare bati esker, 2017an Libanotik kanpo bidaiatu, Europako bi herrialde horietako beste neska talde batzuen aurka jokatu, kanpalekutik kanpoko beste esperientzia batzuk bizi, eta palestinarrek bizi duten egoera latzaren berri eman zuten.

Orain errefuxiatuen kanpalekutik berriro irteteko saiakera egin nahi dute. Asmoa da saskibaloitza jokalariek Italiara,

Euskal Herrira eta Espainiara jokatzera eramatea. Finantzatu ahal izateko Euskal Herriko eta Espainiako 53 musika taldek kanta bana eman dute; entzungai daude CD bikoitz batean, bandcamp-en eta Spotify-n.

Bilduman aurkitu ahal ditugun taldeetatik hamazazpi Euskal Herrikoak dira eta oso anitzak: Sangre de Monoren raggamuffina, Penadas Por La Leyren punk-rocka, Fermin Muguruza eta The Suicide of Western Culture-ren elektro-industrialak, Estricallaren hardcore-punka, Arrotzaken punk iluna, Peadohren hardcore-crusta, Corduraren post-hardcorea, Braulioren rock eskizoa, Panikoren crusta, Ethosen punka, Puto Bastardo Palestineren hardcore-punka,



## BASKET BEATS BORDERS

ASKOREN ARTEAN

AUTOEKOIZPENA

Cult Of Miseryren UK82 metal-hardcorea, La Furiaren rapa, Soma Culten indiea, Holy Nunsen new wave punk-rocka, Rat-Zingerren punk metaleroa eta Fat Lychee & Akerbeatzen hip-hop.

Horiez guztiez gain, badira beste asko eta ahalegin sutsua eginez gero saskibaloitza jokalariek eta herrien arteko borrokek mugak gainditzen dituzten bezalaxe, musika estilo eta ibilbide oso desberdineko taldeak aurki ditzakegu: Rozalen, Txarango, Tremenda Jauria, Mafalda, Desakato, Manolo Kabezabolo eta beste asko.

Dagoeneko CD fisikoa (bikoitza) Euskal Herriko taberna eta elkartasuneko salmenta puntu askotan aurkitu dezakezu 8 eurotan. ●